

BOS

Bilbao
Orkestra Sinfonikoa
Günter Neuhold

1922-2012
KULTURARI ARGI EGITEN
ILUMINANDO LA CULTURA

TEMPORADA 2011-2012 DENBORALDIA



www.bilbaoorkestra.es

90 URTE MUSIKA BIKAINA EGITEN

2012ko martxoaren 8an, 90 urte beteko dira Armand Marsick maisuak Arriaga Antzokian batuta altxatu zuenetik. Bizeten Aberria oberturari hasiera eman zion, hirurogeita hamar irakaslez osaturiko Bilboko indar sinfonikoek egin zuten lehen kontzertuan.

90 urte geroago, orkestra hazi egin da, bai musikarien aldetik bai baliabideen aldetik, eta gau hura posible egin zuen musika ona egiteagatiko garrak bere horretan dirau. Egun hori ospatzeko, BOSek eta bere zuzendari artistiko Günter Neuholden lan ospetsua eskainiko dute. Musikaren historian garrantzi handikoa eta oso ospetsua izan bada ere, Euskadin lehen aldiz estreinatuko da: Arnold Schönbergen Gurrelieder izugarriak. Erromantizismo handiko beltzargaren kantua, berealdiko neurriak dituen lana, non soinu aberatsa ganbera-lan txiki baten sentiberatasunarekin txandakatzen den. Entzuleen artean arrakasta itzela duen haizearen kontra joan ohi den konpositorea da, baina, halaber, funtsezko rola izan du musikaren historian. Horretarako, bada, abeslari famatuen esku-hartzea izango dugu, bai eta partiturak eskatzen duen koru-masa erraldoia ere.

Gure musikariak denak emanda aritzeko lanak bilduko ditu denboraldiak, hala nola, Brucknerren sinfonia, Stravinskyren Petrushka eta Bartóken orkestrarako kontzertua. Era berean, errepertorio aparta osatu eta beti gure atriletan dauden lanak ere egon badaude, Tchaikovskyren "Patetikoa", Schuberten Bederatzigarrena, Beethovenen Seigarrena eta Brahmsen Hirugarrena.

Jazz gaua, Gabonetako Mesia, Inauterietako kontzertua, eta Udaberriko Kontzertua

Denboraldiak hiru hitzordu berezi ditu: Jazz gaua, Inauterietako kontzertua eta Gabonetako kontzertua. Lehenengo hitzorduan, Michael Mossman zuzendari eta tronpeta-jotzaile newyorktarra izango dugu. Fernando Truebaren "Chico y Rita" filmaren soinu-bandaren musikaren orkestra-moldaketak interpretatuko ditu, bai eta jazzaren beste estandar batzuk ere, "Everything happens to me" kasu, edota Stevie Wonderren klasikoak ere bai. Gau berezia izango da, eta 365 Jazz Bilbao jaialdiarekin elkarlanean eskainiko dugu.

Bigarrena, hots, Inauterietako kontzertua, orain dela bi urte abiarazi genuen ekimena da, jai-musika saio bat eskaintzeko helburuarekin, betiere, Inauterien espirituarekin bat eginez eta saio sinfonikoaren ohiko seriotasunarekin hausteko.

Hirugarrena, hots, Udaberriko Kontzertua, urtero mantentzen saiatzen garen ekimena da. Horretarako, bada, neguko atsedenaldiaren izaerak pizten duen unearekin une oro bat datorren musika eskaintzen duen programa eskaintzen dugu; kasu honetan, Beethovenen "Pastorala" Sinfonia.

Eta, azkenik, Gabonetako kontzertua. Händelen Mesias interpretatuko dugu (kasu honetan, W.A. Mozarten orkestrazioan), egun hauekin erlazionatzen den lan herrikoia, baina, paradoxikoki, BOSek ez zuen berau interpretatzen denboraldi barruan 2000. urtetik. Kontzertu hauekin, halaber, Bilboko Korral Elkarteari omenaldia egingo zaio, beraren 125. urteurrena dela eta.

“Lan handiak bakarlarik handientzat” abonua eta Hastapeneko Abonuaren jarraipena

Aurtengo abonua tematikoa lau programatan oinarritzen da. Horietan, nazioarteko etorkizun bereziko lau bakarlarik erreperatorioko lau lan bikainei egingo diete aurre. Wonny Song izar gazte kanadarrak eskainiko duen Griegen kontzertuaren bertsioarekin emango diogu hasiera. Ondoren, Dvoráken kontzertuarekin jarraituko dugu, biolontxelorako egin den kontzerturik ospetsuenarekin, Gaultier Capuçon bikainak eskainia. Biolinerako kontzertuetan, Boris Belkin famatuak Brahmsen kontzertu itzelari egingo dio aurre. Eta, azkenik, gure lagun maite Ainhoa Artetak lieder sorta bat interpretatuko du, Richard Straussen orkestraz lagundurik. Ezinbesteko abonua, interpretatzaile bikainen zaletuentzat.

Hastapeneko Abonua, entzuleek gogokoen izan ohi dutena, mantendu egin da, eta, hala, bada, sei kontzertu hautatu ditugu, ziklo hau abiaraztea bultzatu zuen helburua lortzeko: berehala gozatzea eragiten duten kontzertuak, bai zaletuentzat bai zaletu nahi direnentzat.

17 kontzertuko denboraldia

2011-2012 Denboraldiak 17 kontzertu izango ditu. Azken urteetan ohikoa izaten dena baino bat gutxiago. Arrazoia begi bistakoa da, aurrekontuetan hersturarekiko eta eustearekiko konpromisoak ahalegin bat egitera behartu du Orkestra. Prezioak 2010-2011 Denboraldiaren antzekoak izango dira. Ez da aherentzi behar, 2008-2009 Denboralditik, prezioak berdin mantendu izan direla, eta, leku batzuetan, murriztu ere murriztu egin direla.

Bonobos

Sarrerak aurretiaz erosteko sistema hau gero eta interes handiago sorrarazten ari da, BOSek bere kontzertuetako entzuleei eskaintzen dizkien erosketa-aukeren artean. 2011-2012 Denboraldi honetan, %20ko deskontua dauka sarreren prezio ofizialaren aldean. Bonobosa musika klasikoaren zale bati balio diezaioke, kontzertuek aurrera egin ahala entzun nahi dituen kontzertuak hautatzen joateko, edota, bestela, talde txikiak Bonobosaz baliatu daitezke deskontu interesgarria edukitzeko. Aurreko Denboraldiaren antzera, Bonobosak 6 sarrera izango ditu eta kontzertu baterako edo gehiagorako erabili ahal izango da.

Denboraldia aurkezteko solasaldia

BOSek denboraldia aurkezteko solasaldi publikoak antolatuko ditu. Hala nahi duten abonatuak eta gure kultur eskaintzarekin interesatuta dagoen publikoak gure egitarauaren ezaugarriak zehaztasunez ezagutzeko da helburua. Hitzaldiotara dohainik sartu ahal izango da, baina lekua erreserbatu beharko da, leku-kopurua osatu arte.

Proposamen berezia Orkestraren 90. urteurrenerako

BOSek 1992. urtean abiarazi zuen bere ibilbidea, eta Orkestra jaio zen urte berean jaiotako guztiek efemeride hori partekatu nahi dugu. Horretarako, Denboraldiko kontzertu bakoitzean dohainik sartzeko 20 sarrera jarriko ditugu urte horretan jaiotakoaren eskura. Promozio honetaz baliatzeko mekanismoa erraza da. Bulego orduetan, nahikoa izango da BOSetik pasatzea, eta jaiotza-data egiaztatu ondoren, sarrera hartu ahal izango dute, dohainik.

Eskaintzak 2011-2012 Denboraldirako programa guztietarako balioko du. Kontzertu bakoitzean egongo den gehienezko gonbidapen kopurua 20koa izango da. Behin esleiturik, kontzertu horretarako promozioa itxita egongo da.

GANBERAKO MUSIKA

Gure Ganberako denboraldia hamar kontzertuk osatzen dute. Kontzertuok Euskalduna Jauregiko A-1 aretoan egingo dira. Astelehenetan izango dira beti, urriaren 24tik maiatzaren 21era arte.

Zazpi BOSeko ganberako taldeak jotakoak izango dira.

Gure gonbidatutako bakarlarrietatik hiru ganberako bina egitarautan parte hartuko dute: batetik, "Bakarlari handiak errezitaldian" zikloaren barruan, Wonny Song pianistak azaroaren 14an joko du, eta Gautier Capuçon biolontxelo-jotzaileak, berriz, otsailaren 13an. "Bakarlari bikainak BOSekin" zikloaren barruan, Boris Belkin biolin-jotzaileak gure irakasleekin parte hartuko du, maiatzaren 14ko kontzertuan.

2011-2012 DENBORALDI SINFONIKOA

2011-2012 Denboraldian, BOSeK aurrera jarraitzen du lehenagoko denboraldietan sartutako berrikuntzen bidetik; izan ere, berrikuntza horiek oso emaitza onak ari dira ematen, gure Orkestraren jarduera Bizkaiko gizarteari hurbilazteko asmoarekin.

Abonu tematikoa: Lan handiak bakarlari handientzat

Egitarauak: 3, 10, 15, 17

Aurtengo abonu tematikoa lau programatan oinarritzen da. Horietan, nazioarteko etorkizun bereziko lau bakarlarik erreperatorioko lau lan bikainei egingo diete aurre. Wonny Song izar gazte kanadarrak eskainiko duen Griegen kontzertuaren bertsioarekin emango diogu hasiera. Ondoren, Dvoráken kontzertuarekin jarraituko dugu, biolontxelorako egin den kontzerturik ospetsuenarekin, Gaultier Capuçon bikainak eskainia. Biolinerako kontzertuetan, Boris Belkin famatuak Brahmsen kontzertu itzelari egingo dio aurre. Eta, azkenik, gure lagun maite Ainhoa Artetak lieder sorta bat interpretatuko du, Richard Straussen orkestraz lagundurik. Ezinbesteko abonua, interpretatzaile bikainen zaletuentzat.

Hastapeneko abonua

Egitarauak: 3, 6, 8, 10, 14, 16

Hastapeneko abonua aurrera jarraitzen du zaleentzako zein zaletu nahi direnentzako sei kontzertu antolatzekeko filosofiarekin. Izaera desberdineko sei kontzertu dira, eta jendeari berehalako gozamen eskaini nahi zaio (2, 6, 8, 10, 14 eta 16. egitarauak).

Abonua Nahierara

Abonua Nahierara aukerak arrakasta handia izan du, eta aurrera jarraitzen du bere filosofiarekin. Horri esker, euren abonu labur propioa egin nahi duten zaleek aukera dute sei kontzertu hautatzeko.

Gazteentzako abonua

BBKrekin dugun lankidetzari esker, BBK26= eta BBK26+ txartelak dituztenek, hau da, 30 urtera artekoek, oso prezio bereziak lortu ditzakete, sarrerak txartel-leihatiletan erosten badituzte. Abantaila horietaz gozatzeko baldintza bakarra da txartel horien titularrak txartel horrekin ordaintzea BOSen denboraldi sinfonikoko abonua edo sarrerak.

Abonatu babesleak

Abonatu babeslearen figurari esker, abonatu talde honek, ekarpen handiago baten truke, zenbait aintzatespen eta abantaila ditu BOSen barruan. Pertsona fisikoetara zein juridikoetara egokitzen den figura da. Abonatu babesleek zerbitzu hauetarako eskubidea daukate:

- Beraren izena argitaratzea denboraldi hasiera eta amaierako eskuko programetan; programa horretan, babesleekin batera agertuko da, eskerrak emateko sail berezi batean. Denboraldiari buruzko laburpenetan ere argitaratuko da beraren izena.
- Butaka aukeratzeko lehentasuna, hutsik dauden butaken artean.
- Butaka aldatzeko lehentasuna, horretarako ezarritako epean.
- Lau gonbiterako eskubidea, Denboraldian zehar.
- %20ko deskontua BOSeko sarrerak erostean.
- Gonbita BOSek egiten dituen jarduera sozialetara.
- Ganberako abonua barne.
- BOSek denboraldian zehar egiten dituen argitalpenak doan emango zaizkio.

Azken orduko sarrerak

Gure abonatuei eskaintzen diegun abantailetakoa bat da, nahikoa denborarekin abisatuz gero, denboraldiko kontzertura joateko eguna aldatzeko aukera izatea. Horrek esan nahi du, egitarau bakoitzean, osteguneko eserleku batzuk okupatu gabe egoten direla, abonatuek ostirala aukeratu dutelako, eta alderantziz.

Denboraldi honetan, sarrera-modalitate berri honek izan duen arrakastari esker, sarrerak txartel-leihatilan eta kontzertuaren egunean bertan erosteko aukera mantentzen dugu, 19:00etatik 19:55era, eta benetako kostuaren %50ean. Kontzertura joan nahi duen edozeinek erosi ahal izango ditu.

Hauek dira eskaintza honen baldintzak:

- Sarrera horiei ez zaie beste deskonturik aplikatzen.
- Ezin da eserlekurik aukeratu; eremua baino ezin da aukeratu.
- Elkarren ondoan bi butaka ba ote dauden kontsultatu ahal izango da.

Prezio bereziak langabetu eta familia ugariarentzat

Talde hauei dagokienez, prezio berezia dago C Guneko sarrera solteetarako. Sarrera horiek %50eko deskontua izango dute euren prezio ofizialarekiko.

Taldeentzako deskontuak

Taldeentzako deskontu mota bi eskaintzen ditugu. Bata, %20koa, 7 eta 14 leku bitartean okupatzen dituzten taldeentzat; eta beste bat, %25koa, 15 lagun edo gehiagoz osatutako taldeentzat.

Denboraldi berriari buruzko datu nagusiak

Denboraldiaren hasiera eta amaiera

Hasiera: 2011ko urriaren 6-7a

Amaiera: 2012ko ekainaren 7-8a

Denboraldi sinfonikoaren datuak

17 egitarau	Hasierako kontzertu 1
34 kontzertu	Gabonetako kontzertu 1 (6.a)
Interpretatutako 49 lan	Inauterietako kontzertu 1 (11.a)
38 bakarlari eta zuzendari	Udaberriko kontzertu 1 (14.a)
2 egitarau sinfoniko koral	Amaierako kontzertu 1

2010-2011 DENBORALDIKO ABONUEN ETA SARREREN PREZIOA (18 kontzertu)

Abonu Arrunta

Abonu mota	A+ EREMUA	A EREMUA	B EREMUA	C EREMUA
Abonu Osoa	337,00 €	309,50 €	247,50 €	175,50 €
Hastapeneko Abonua	-	121,50 €	93,00 €	70,00 €
Abonua Nahierara	125,00 €	95,80 €	72,00 €	
“Lan handiak bakarlari handientzat”	-	92,00 €	65,00 €	49,00 €

Babesle abonua

Abonu mota	A+ EREMUA	A EREMUA	B EREMUA	C EREMUA
Partikularrak (ab. 1)	630,00 €	600,00 €	490,00 €	-
Enpresak (2 ab.)	1.500,00 €	1.400,00 €	1.200,00 €	-

Gazteak Abonua

Abonu mota	A+ EREMUA	A EREMUA	B EREMUA	C EREMUA
Abonu Osoa	115,00 €	115,00 €	81,00 €	70,00 €
Hastapeneko Abonua	-	43,00 €	31,20 €	22,00 €
Abonua Nahierara	45,80 €	32,30 €	24,00 €	
“Lan handiak bakarlari handientzat”	-	30,50 €	22,50 €	16,50 €

Gazte Abonua (BBK26 eta BBK26+)

Abonu mota	A+ EREMUA	A EREMUA	B EREMUA	C EREMUA
Abonu Osoa	54,00 €	54,00 €	33,00 €	33,00 €

ESERLEKUEN PREZIOA

Sarrera mota	A+ EREMUA	A EREMUA	B EREMUA	C EREMUA
Sarrera arrunta	27,50 €	24,70 €	17,20 €	13,00 €
Gaztea sarrera	8,10 €	8,10 €	6,00 €	4,40 €
Gazteen sarrera (BBK26 eta BBK26+)	3,30 €	3,30 €	2,20 €	2,20 €
Azken ordukoa	13,70 €	12,30 €	8,60 €	6,50 €
Bonobos	---	118,00 €	82,00 €	62,00 €

ABONUEN BERRIKUNTZA

Berritze automatikoa: abonua errazago berritu ahal izateko, modu automatikoan berrituko dira. Abonuei baja eman nahi dieten pertsonak faxez, postaz, posta elektronikoz edo BOSen bulegoetara joanda jakinaraz dezakete (09:00etatik 14:00etara), 2011ko ekainaren 17a baino lehen.

ALDAKETA ESKAERAK

Abonuetan aldaketak egin nahi dituzten abonatuak ekainaren 6tik 17ra arte egin beharko dute eskaera faxez, postaz, posta elektronikoz edo BOSen bulegoetara joanda (09:00etatik 14:00etara).

ABONU BERRIEN SALMENTA

Denboraldi osorako abonua:

Ekainaren 20tik aurrera

Hastapeneko Abonua / Abonua Nahierara / "Lan handiak bakarlarri handientzat" abonua

Irailaren 1etik aurrera

SARREREN SALMENTA

Irailaren 14tik aurrera izango dira salgai kontzertuetarako sarrera solteak:

- Euskaldunako txartel-leihatilak
- BBKren telefono bidezko salmenta: 944 310 310
- BBKren orotarako kutxazainak
- Internet bidezko salmenta: www.bbk.es

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA
TEMPORADA SINFONICA 2011-2012

BOSen DENBORALDIA 1

Hasierako kontzertua

URRIA, Og 7 – Or 8



R. Schumann: *Konzertstück lau tronpa eta orkestrarako*
A. Bruckner: *7. sinfonia Mi maiorrean*

Stefan Dohr, tronpa **Juan Manuel Gómez**, tronpa
José Vicente Castelló, tronpa **José Miguel Asensi**, tronpa
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 2

AZAROA, Og 10 – Or 11



Severin von Eckardstein

I. Stravinsky: *2. suitea orkestra txikirako*
M. Ravel: *Kontzertua ezkerreko eskurako*
I. Stravinsky: *Petrushka*

Severin von Eckardstein, pianoa
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 3

Abonuak: Hastapena – “Lan handiak bakarleri handientzat”

AZAROA, Og 17 – Or 18



Wonny Song

J. Santacreu: *Edertasun ezgaituaz (AEOS-BBVA saria)*
E. Grieg: *Kontzertua piano eta orkestrarako la minorrean*
G. Rossini / O. Respighi: *La boutique fantasque*

Wonny Song, pianoa
Marzio Conti, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 4

Jazz gaua

ABENDUA, Og 1 – Or 2



Michael Mossman

M. Mossman: "Chico y Rita" soinu bandaren eta "Benathe de Mask" balleterako musikaren hautaketa.

M.Mossmanek moldatua, Matt Denisen, David Raksinen, Jelly Roll Mortonen eta Stevie Wonderen musika oinarri hartuta.

Michael Mossman Quintet
Michael Mossman, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 5

ABENDUA, Og 15 – Or 16



Guy Braunstein

D. Shostakovich: *1. kontzertua biolin eta orkestrarako, op. 99*
P.I. Tchaikovsky: *6. sinfonia si minorrean, op. 47, "Patetikoa"*

Guy Braunstein, biolina
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 6

Gabonetako Kontzertua - Hastapeneko abonua

ABENDUA, Og 22 – Or 23



G.F. Händel: *Mesias (W.A. Mozarten orkestrazioa)*

María José Moreno, sopranoa
Mezzosopranoa (zehaztu gabe)
Tenorra (zehaztu gabe)

Christopher Robertson, baxua
Bilboko Koral Elkartea (J. Gergely, zuzendaria)
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 7

URTARILA, Og 12 – Or 13



F. Escudero: *Dantzari baten ametsa*
H. Tomasi: *Kontzertua tronpetarako*
D. Shostakovich: *11. sinfonia, op. 103, "1905. urtea"*

Alison Balsom, tronpeta
Ryusuke Numajiri, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 8

Hastapeneko abonua

URTARILA, Og 19 – Or 20



Marco Guidarini

P. Dukas: *Belagile-aprendiza*
D. Shostakovich: *1. kontzertua biolontxelo eta orkestrarako*
H. Berlioz: *Kortsarioa, obertura*
C. Debussy: *La mer*

Alban Gerhardt, biolontxelo
Marco Guidarini, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 9

OTSAILA, Og 2 – Or 3



Hadar Halevy

Ravel: *Pabana hildako infanta batentzat*
L. Bernstein: *1. sinfonia*
F. Schubert: *9. sinfonia Do maiorrean, "Handia"*

Hadar Halevy, mezzosopranoa
Yaron Traub, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 10

Abonua: Hastapena – "Lan handiak bakarleri handientzat"

OTSAILA, Og 9 – Or 10



Gautier Capuçon

A. Dvorák: *Kontzertua biolontxelo eta orkestrarako, op. 104*
Moussorsky/Ravel: *Erakusketa bateko koadroak*

Gautier Capuçon, biolontxelo
Pavel Kogan, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 11

Inauterietako kontzertua

OTSAILA, Og 16 – Or 17



Horacio Parravicini

Rossini: *La gazza ladra*, obertura
G. Bizet/Borne: *Carmenen gaien gaineko fantasia, txirula eta orkestrarako*
E. Damare: *La merle blanc, piccolo eta orkestrarako*
F. Liszt/ G. Darvas: *2. rapsodia hungariarra II*
Berlioz: *Inauteri erromatarra, obertura*
F. Velázquez: *mendebaldeko haizea*
M. Ravel: *Bolero*

Horacio Parravicini, txirula
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 12

90 urte BOS

MARTXOA, Og 8 – Or 9



A. Schönberg: *Gurrelieder* (E. Steinen bertsioa)

Anne Swanewillms, sopranoa (Tove)
Simon O'Neill, tenorra (Waldemar)
Lilli Paasikivi, mezzosopranoa (Waldtaube)
Jon Frederic West, narratzailea
Arnold Bezuyen, tenorra (Klaus-Narr)
Fernando Latorre, baritonoa (Bauer)
Easo Abesbatza (X. Rallo, zuzendaria)
Errenteriako Andra Mari Abesbatza (J. M. Tife, zuzendaria)
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 13

MARTXOA, Og 22 – Or 23



Eldar Nebolsin

H. Villalobos: *Bachianas brasileiras, 4. zk., preludioa*
W.A. Mozart: *Kontzertua La maiorrean, K.488*
P.I. Tchaikovsky: *2. sinfonia*

Eldar Nebolsin, pianoa
Isaac Karabtchevsky, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 14

Abonuak: Hastapena - Udaberriko kontzertua

MAIATZA, Og 3 – Or 4



Nemanja Radulovich

E. Soutullo: *All the echoes listen*
E. Korngold: *Kontzertua biolin eta orkestrarako*
L. van Beethoven: *6. kontzertua Fa maiorrean, op.68*
“Pastorala”

Nemanja Radulovich, biolina
Josep Caballé Domenech, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 15

“Lan handiak bakarleri handientzat” abonua

MAIATZA, Og 10 – Or 11



Boris Belkin

J. Brahms: *Kontzertua biolin eta orkestrarako Re maiorrean*
B. Bartók: *Kontzertua orkestrarako*

Boris Belkin, biolina
Günter Neuhold, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 16

Abono de Iniciación

MAIATZA, Og 31 – EKAINA, Or 1



Alessio Bax eta Lucille Chung

J. Adams: *The chairman dances*
F. Poulenc: *Kontzertua bi piano eta orkestrarako re minorrean*
F. Mendelssohn: *4. sinfonia “Italiarra”*

Alessio Bax eta Lucille Chung, pianoak
Guillermo García Calvo, zuzendaria

BOSen DENBORALDIA 17

Amaierako kontzertua – “Lan handiak bakarleri handientzat” abonua

EKAINA, Og 7–Or 8



J. Brahms: *3. sinfonia Fa maiorrean, op. 90*
L. Janacék: *Katia Kabanova, suitea*
R. Strauss: *Lieder aukeraketa*

Ainhoa Arteta, sopranoa
Günter Neuhold

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA
2011-2012ko BESTE JARDUERA BATZUK

BOSen gainerako jarduez gain (Ganberako Denboraldia Bizkaitik edo Kontzertu Didaktikoak eta Familiar programaren Denboraldia –dagokionean emango da horren berri–), BOSek zenbait konpromiso hartu ditu 2011-2012 aldirako:

2011ko ABUZTUA

Abuztuak 1 Santanderreko Nazioarteko Jaialdia

2011ko URRIA

Urria OLBEren Opera

2011ko AZAROA

Azaroak 24 Kontzertu parte-hartzailea

2011ko ABENDUA

Abenduak 28 Txistu Symphonic

2012ko MARTXOA

Martxoak 2 eta 3 Musika-Música jaialdia

2012ko APIRILA

Apirilak 1 Logroño. Carmina Burana, Iruñeko Orfeoiarekin
Apirila OLBEren Opera

2012ko EKAINA

Ekaina Zarzuela Arriaga Antzokian